

# UZTURREKO SAN INAZIO SENDATEGI-BASERRIA 1866-1964





## Hitzaurrea

**A**urten 160 urte beteko dira Tolosako Miserikordia Etxeak Uzturre mendian zituen lursailetan biriketako gaisoak hartzeko asmoarekin sendategi bat eraiki zuenetik. Tolosar askorentzat oso toki kuttuna bada ere, etxearen historia ez da ikertua izan eta horregatik modu okerrean deitu izan zaio beti: “Miserikordia zaharra”.

Miserikordia zaharra, ordea, Arrameleko San Juan ermitaren ondoan zegoen, eta 1774tik 1920 urtera arte egon zen zabalik. Ikerketa honetan aurkitutako dokumentuen arabera, Uzturreko sendategia 1866. urtean eraiki zen, oso testuinguru berezian. Garai hartan, gaisotasun kutsakorrek kezka handia sortu zuten herrian, ikusi besterik ez dago hamarkada bat lehenago, 1855 urtean, kolerak hirurehun hildako baino gehiago eragin zituela Tolosan, horietatik ehun baino gehiago Miserikordia barruan. Trenaren iritsierak, 1864an, areagotu egin zuen gaisotasunen zabalkundearen inguruko ezinegona.

Testuinguru honetan eraiki zen, beraz, Uzturreko erietxea, mendi horretan Miserikordiak zituen borda eta iturburua aprobetxatuz. Koleraren aurka ahalegin handiak egin zituen Manuel Ezcurdia Arbelaiz mediku tolosarra izan zen sustatzaile nagusia eta eraikuntzak 12.020 errealeko kostua izan zuen, zati handiena herritarrek emandako diruarekin ordaindu bazen ere.

Arrameleko egoitza nagusiak zituen 460 oheekin alderatuta, Uzturreko sendategia xumea zen, hogeitau besterik ez baitzitu. Gainera, «ospitale-etxe» izateko eraiki bazuten ere, ez zen gaisoak artatzeko soilik erabili. Miserikordiak 24 hektarea lur zituen inguruetan, baita abelburuak ere, eta haiek zaintzera igotzen ziren langileek ere erabili zuten aterpe hartzeko.

Ia mende osoa egon zen zabalik, baina 1920 urteaz geroztik –Arrameleko Miserikordia Iurreamendira lekualdatu zenetik– uda partean bakarrik erabili zuten, Miserikordia langileak belar-lanetara joaten zirenean, hain zuzen. Iurreamendiko mojek ere erabili zuten etxea, umeekin egun pasa joateko.

Bere kokapen estrategikoa dela eta, gerra garaietan (Bigarren Karlistaldian zein 36ko Gerran) enfrentamendu militarren lekuko izan zen, baina etxeak zutik mantentzea lortu zuen.

1942tik aurrera, eta hogeitau urtez, Elduaian-Ugartemendia familia bizi izan zen bertan, baserria berriro martxan jarritz. 1962an kaleko etxe batera joan ziren bizitzera eta handik bi urtera, eraikina hustu eta itxi ondoren, hondamendi egoeran geratu zen. Duela hamarkada bat, ordea, hondakinak berreskuratzeko lanak hasi ziren auzolandegien bitartez, eta gaur egun ere bolondres talde batek lanean jarraitzen du etxearen memoria bizirik mantentzeko.

Ikerketa historiko hau etxea berreskuratzeko lan horiek osatzera dator. Horretarako, artxiboetan eta garaiko egunkarietan eta dokumentuetan gordeta zegoen informazioa aztertu dugu eta San Inazio etxean jaiotako Elduaian-Ugartemendia familiako kideen testigantza jaso dugu.



### Aurrekariak: 1855eko kolera epidemia hilgarria

**U**zturreko San Inazio sendategi-baserria Miserikordia Etxe Santuak 1866. urtean biriketako gaitzak zituzten gaixoak artatzeko asmoarekin mendi horren magalean egokitu zuen eraikuntza bat da. Bi urte lehenago eraikitako abereentzako borda bat aprobetxatu zuen horretarako, baita inguruan zuen iturburu bat ere.

Tolosar askok mendian dagoen eraikin horri «Miserikordia zaharra» deitzen dion arren, ongintza erakundeak zituen instalazioetako bat baino ez zen, Miserikordiaren eraikin nagusia Arramele auzoan baitzegoen, izen bereko ermitaren eta zubiaren artean, gaur egungo Larramendi kaleko 2, 4 eta 6 ezkaratzak dauden tokian, hain zuzen.

Larramendi kaleko eraikin hori 1774an altxa zen Alde Zaharreko Santa Maria kalean zegoen ospitale zaharra ordezkatzeko, Federico de Zavala eta Juan Garmendia Larrañagaren “Monografía histórica De la Villa de Tolosa” izeneko lanak jasotzen duen bezala. Zabalik egon zen lehen urteetan, eskualdeko beharatsuak hartu zituen, eta 1803tik aurrera, baita haur expositoak ere. 1813ko Independentzia Gerran erre eta suntsitu ondoren, berreraiki egin zuten eta 1830etik aurrera San Vicente de Pauleko Karitatearen Alabek kudeatu zuten. 1845ean, Foru Diputazioaren ekimenez, lurralde historikoko lehen amatasun-ospitalea hartu zuen.

Arramelen ia 150 urtez martxan egon zen Ongintzaren Etxe Santua garrantzi handiko erakundea zen; izan ere, 460 ohe inguru zituen –363 harreran hartutako pertsonentzat eta 97 ospitaleratuentzat–, 1868 urteko ondasunen inbentario batean jasotzen denez. Ongintza Batzordeak zuzentzen zuen –urte haietan Ramón de Lizarzaburu buru zela– eta, bere aurrean, Ama Nagusiak hilero establezimenduko gastuen kontuak aurkezten zituen, horiek ere kopuru garrantzitsukoak, 25.000 eta 35.000 erreal artekoak (moneta hori 0,25 pezeta ingurukoa zen, beraz, garaiko 6.250 eta 8.750 pezeta bitarteko kopuruaz hitzegiten arituko ginateke). Kontuan izan behar da ongintza-erakunde honetan egunero 400 pertsona inguru artatzen zituztela, horien artean beharatsuak, adinekoak, haur expositoak, bidaiariak eta gaixoak.



Miserikordia Etxe zaharra Arrameleko zubiaren eta ermitaren artean zegoen, eta 1774 eta 1920 artean egon zen zabalik. Egutero 400 pertsona inguru artatzen zituen, tartean behartsuak, adinekoak, umeak, ibiltariak eta gaixoak. Mende hasierako postal honetan, haur horietako batzuk agertzen dira eraikinaren aurrean eta, atzealdean, Uzturreko mendi-magalean, 1866 urtean eraiki zen sendategia ikus daiteke.

(Tolosako Udal Artxiboa)

Egoitza nagusitik bereizitako eraikin bat altxatzeko ideia, ziurrenik, XIX. mendean Gipuzkoa kolpatu zuten epidemien ondorio izan zen. 1855. urtean, adibidez, herrialdeak «kolera-morbo asiarra» izeneko izurritearen bigarren oldarraldia jasan zuen eta horren ondorioz, hurrengo urtean, Miserikordiaren atzealdean eraikin berri bat altxa zuten, gaixotasun «epidemikoak» hartzeko helburuarekin. Izan ere, epidemia horren eragina izugarria izan zen, bereziki Ongintza Etxearen barruan, gertaera historiko hori orain arte behar bezala aztertu ez den arren.

Ikerketa honetan Tolosako Udal Artxiboan jaso ahal izan ditugun datuen arabera, 1855eko abuztuaren 2tik urriaren 17ra bitartean, hau da, bi hilabete eta erdian bakarrak, gaixotutako 150 pertsonatik 104 hil ziren Miserikordian (gaixoen %70 hil ziren). Alkatetzaren txosten batean jasotzen diren datuak dira horiek, aipatutako abuztuaren 2tik («lehen kasua gertatu zen egunetik») izurritea «desagertu» zen egunera arte (urriaren 17a arte). Bertan zehazten denez, Miserikordian gaixotutako 59 gizonetatik 50 hil ziren; 51 emakumetatik 40; 19 mutikoetatik 9; eta 21 neskatiletatik 5.

Miserikordiaren hormetarik kanpo, kolerak ere gupidagabe jo zuen, bai kaleko etxebizitzetan baita baserrietan ere, nahiz eta hildakoen ehunekoa hain handia ez izan. Txosten horren arabera, Miserikordiatik kanpo 520 pertsona gaixotu ziren eta horietatik 239 hil ziren (%46), beraz, salbatu zirenak gehiago izan ziren, 281 (%54). Guztira, Tolosan 670 pertsona gaixotu ziren eta horietatik 343 hil ziren.

Balantze horrek epidemia urriaren 17an «desagertu» zela dioen arren, kontua da hilaren bigarren erdian gogortu egin zela berriro eta, beraz, hurrengo hilean egindako balantzean, bai Miserikordian bai biztanleria osoan hildako pertsonen kopuruak gora egin zuen, aipatutako 343tik 380ra, hau da, garai hartan Tolosak zituen 7.700 biztanleen %5.

Garaiko dokumentuek modu deigarrian erakusten dute Miserikordia Etxearen barruan bizi zen egoera dramatikoak. 1855eko irailaren 10ean, Ongintzako Udal Batzordeak jakinarazi zuen gaixoak artatzen zituzten Karitateko bost ahizpa hil zirela, beste bi gaixorik zeudela (ama nagusia barne) eta establezimenduko kapilaua ere larri zegoela. Etxearen egoera «zorigaitzokoa»

**1855 urteko  
abuztuaren 2tik  
urriaren 17ra  
bitartean, hau  
da, bi hilabete  
eta erdian,  
kolerak kutsatu-  
tako 150  
pertsonetatik  
104 hil ziren  
Miserikordian.**

zen eta, horregatik, Ongintza Batzordeak biziki eskatu zion Madrilgo Karitateko Ahizpen zuzendari nagusiari moja gehiago bidal zitzala gaixoei arreta ematen jarraitu ahal izateko.

Irailaren 24ko beste dokumentu batean, epidemia «ustekabeen eta modu harrigarri eta beldurgarrian» garatu zela adierazten da. Kutsatutako pertsonen hedapen azkarrak, batez ere Miserikordian artatutakoen artean –eta gainerako herritarren bano hildakoen portzentai askoz handiagoa eragin zuenak–, 1856an Arrameleko eraikinaren atzealdean aipatutako «epidemikoen» edo «kole-rikoen» ospitalea eraikitzea eraman zituen ongintza-erakundeko arduradunak.

Baina ez zen kolera garai hartan jendea kolpatzen zuen gaixotasun bakarra. 1856ko urtarrilean, Probintziako Osasun Batzordeak bidalitako zirkular baten arabera, «gaixotasun kutsakorren artean nabarmenenetako bat baztanga izanik, alkateak eta udalak herri bakoitzean etxe edo lokal bat jartzen saiatuko dira, non isolamendurik zorrotzenarekin gaixotasun hori dutenak bildu eta artatuko diren, eta gaixoei eta haien zerbitzariak ez duten inongo harremanik izango jendearekin, gutxienez, berrogei egunez».

Agindu horri jarraituz, Miserikordiaren baratzean etxola bat prestatu zuten baztangak jotako gaixoak isolatzeko, nahiz eta ordurako aipatutako «epidemikoen» ospitalea bazegoen. Horixe egin zuen 1857ko ekainean ongintza-erakunde horretara «hamalau hilabeteko haur gaixo batekin» joan zen Irurako emakume batekin. Eraikuntzatik kanpo hartu zituzten, «mota horretako gaixotasunetarako dagoen etxolan», eta han «isolatuta eta inkomunikatuta» egon ziren, «lokal hartan beste inori sartzen ez uzteko aginduz, modu horretan kutsatzeen zabalkundea eta haren zorigaitzoko ondorioak saihesteko». Haurraren egoerak, ordea, okerre-ra egin zuen eta sei egunera hil zen.

Hurrengo urteetan, kolera izurritea gainditu bazen ere, gaixotasun horrek berriro kutsadurak ekarriko zituen beldurrak bizirik jarraitzen zuen, batez ere 1863an Tolosara Iparraldeko trenbidea iritsi ondoren. 1865eko urrian, adibidez, Udaleko Osasun Batzordeak hainbat gestio egin zituen Tolosako tren-geltokira iritsi zitezkeen «morbo kolerak erasotako bidaiariak» hartu ahal izateko «toki isolatu batean» ospitale bat prestatzeko. Batzordearen ustetan, bidaiari horiek

***Kezkaz betetako  
testuinguruan  
erabaki zuten  
Miserikordia  
Etxeko arduradu-  
nek toki alden-  
duago batean  
eraikin berri bat  
prestatzea, gaixo  
infekziosoak gai-  
nerako gaixoen-  
gandik isolatuta  
egon zitezen.***

1863 urtean Tolosara iritsi zen Iparraldeko burdinbideak aurrerapen haundia ekarri zuen, baina aldi berean gaixotasun infektzioen hedapenaren beldurra areagotu zuen, 1865eko Udako Osasun Batzordearen dokumentuetan ikus daitekeenez. Irudian, Tolosako geltokiaren mende hasierako postal koloreztatua, non lurrunezko bi tren ageri diren.

(Argazkia: Julian Arrillaga)



**Eraikin berri-  
ren bultzatzaile  
nagusietako bat  
Manuel  
Ezcurdia  
Arbelaiz medi-  
kua izan zen,  
hamarkada bat  
lehenago kolerak  
jotako gaixoak  
artatzeko bere  
burua eskaini  
zuen.**


herrian hartzea ez litzateke komenigarria izango, «bai jendearen alarma saihesteko, baita hedatzeko arriskua ere». Hala eta guztiz ere, gestio asko egin ziren arren, ez zen etxe egokirik aurkitzea lortu.

Testuinguru horretan erabaki zuten Ongintza Etxeko arduradunek toki alden-  
duago batean eraikin berri bat prestatzea, gaixo infekziosoak ospitaleratutako  
gainerako pertsonengandik isolatuta egon zitezen. Misericordiak lursail zabalak  
zituen Uzturre mendiaren magalean, baita 1864an eraikitako borda bat ere, era-  
kundearen jabetzako soroetan lan egin eta abereak zaintzen zituzten pertsonen  
ostatu emateko. Hori dela eta, 1866an borda hori handitzea eta haren ondoan  
erietxe bat eraikitzea erabaki zuten.

Instalazio berri horren bultzatzaile nagusietako bat Manuel Ezcurdia Arbelaiz  
mediku tolosarra izan zen. Hil zen utean Revista Bascongada aldizkariak gogora-  
tu zuen bezala, Ezcurdiak «modu berezian lagundu zuen oso emaitza onak ematen  
dituen bularreko gaixoentzako etxe bat ezartzen Uzturren».

Ez da kasualitatea hamaika urte lehenago Ezcurdiak 1855. urtean kolerak era-  
gindako gaixoen arretan lan egin izana. Udal Artxiboan dagoen dokumentazioa-  
ren arabera, garai hartan Bartzelonan Medikuntzako laugarren urtea ikasten ari  
zen Ezcurdia bera izan zen Udalbatza honi bere burua eskaini ziona, bere eza-  
gutzekin medikuei laguntzeko eta gaixoak artatzeko. Azken hauek «giza-berotasunez,  
samurtasunez eta maiztasunez» lagundu zituela gaineratzen dute udal agi-  
riek.

Lizentziatu titulua lortu ondoren, Tolosako mediku titularra izan zen eta  
1873an Errepublikako Boluntarioen Bigarren Konpainiako teniente izendatu  
zuten. Gaixotasunez hil zen 1884an, 52 urte zituela.



*Alcalde de la Villa de Tolosa.*

*Cedula demostrativa de los inválidos, cueros, y faltantes del Colera-morbo desde el día 2.º de Agosto en que ocurrió el primer caso hasta su desaparición.*

Tolosa.	Clase.	Inválidos.	Cueros.	Faltantes.
<i>Cada población y Cueros</i>	<i>Inválidos</i>	136	74	58
	<i>Inválidos</i>	265	110	125
	<i>Niños</i>	77	37	42
	<i>Niños</i>	51	30	21
	<i>Inválidos</i>	57	9	50
	<i>Inválidos</i>	51	11	40
<i>Cada caso de inválidos</i>	<i>Niños</i>	11	10	9
	<i>Niños</i>	21	16	5
	<i>Total</i>	670	327	343

*Resumen.*

	Inválidos	Cueros	Faltantes
<i>Cada población y Cueros</i>	390	291	239
<i>Cada caso de inválidos</i>	180	56	106
	670	327	343

*Tolosa 17.º de Octubre de 1855.  
El Alcalde,  
Manuel Ezcurdia*

Tolosako Alkatetzaren txostena, kolerak herritarrengan izan zuen eraginari buruzkoa.

Dokumentu honetan zehazten denez, 1855eko abuztuaren 2tik («lehen kasua gertatu zen eguna») urriaren 17ra bitartean («izurrite hau desagertu zen eguna»), Misericordian gaixo zuden 150 pertsonetatik 104 hil ziren. Tolosako biztanleria osoan, berriz, gaixotutako 670 pertsonetatik 343 hil ziren.

(Tolosako Udal Artxiboa)

«Uzturreko Ospitale Etxe berriak» eraginda-ko gastuen kontua. Honekin batera, lanean aritutako gremioek (harginek, igeltseroek, zurginek...) emandako egiaztagiria aurkezten dira. Horietan, materialen kostuak zehazten dira, hala nola taulak, soliboak, teilak, bolborara... Guztira, 12.020 erreal eta 48 zentimo. Argazkiko agiria 1866 urteko ekainaren 10koa da.

(Tolosako Udal Artxiboa)

Item Description	Amount
Plano de Canton N.º 1.ª Quinta de la finca...	659.75
N.º 2.ª Segunda mano de los muros...	576.50
N.º 3.ª Tercera mano de los muros...	248.00
N.º 4.ª Cuarta mano...	470.00
N.º 5.ª Quinta mano de los muros...	1.125.00
N.º 6.ª y 7.ª de este fondo de libros...	607.00
N.º 8.ª de 393.ª de temporales de Uzturre...	1.770.75
N.º 9.ª de 200.ª para el traslado de la propiedad de...	484.00
N.º 10.ª de los tablones...	1.000.00
N.º 11.ª de los tablones...	960.00
N.º 12.ª de los tablones...	320.00
N.º 13.ª de los tablones...	700.00
N.º 14.ª de la última mano de los muros...	500.00
N.º 15.ª de los muros de Uzturre...	768.00
N.º 16.ª de los muros de Uzturre...	110.00
N.º 17.ª de los muros de Uzturre...	64.00
N.º 18.ª de los muros de Uzturre...	106.50
N.º 19.ª de los muros de Uzturre...	210.00
<b>Total</b>	<b>12.020.48</b>

### Sei asteko lana eta 12.020,48 errealeko kostua

Tolosako Udal Artxiboan gordetzen diren Miserikordiako akta-liburuetan «Uzturreko Ospitale Etxe berria» izenarekin agertzen den etxearen eraikuntzak 12.020 erreal eta 48 zentimoko kostua izan zuen. Horrela, Etxe Santuaren Batzarrak 1866ko ekainaren 11n egin zuen bileran, «Ospitale Etxe berriak edo hiribildu honetako jurisdikzioa den Uzturre mendian establezimenduko aziendarentzat lehenagotik zegoen eraikin txiki bat gehituz, gaixo eta eriondo jakin batzuentzat egin den lanak» eragindako gastuen kontua aurkeztu zen. Lan horien kostua «hamabi mila eta hoge erreal eta berrogeita zortzi zentimokoa» izan zen.

Eraikuntza-lanak hilabete eta erdiz luzatu ziren, ekainaren 10eko data duen gastuen zerrenda xehatu batean ikus daitekeenez. Bertan, Pedro Gabirondo hargin-maisuak aurkeztutako sei asteko lanen kontuak zehazten dira. Zerrenda horrekin batera, lanean aritu ziren gremioek (harginek, igeltseroek, arotzek...) aurkeztutako egiaztagiria jasotzen dira, eta materialen kostuak ere zehazten dira, hala nola taulak, soliboak, teilak, bolborara... Erabilitako soliboen jatorria ere zehazten da zerrenda horretan: Betelutik garmiatutako 393 ukondo lineal (ukondo bat, 0,41 metro) eta «Martín Lazquibar Achupigaren jabetzatik ateratako beste zati bat».

Bi hilabete beranduago Pedro Gabirondok aurkeztutako kontuetako batek, 1866ko abuztukoak, Uzturre mendian Miserikordia Etxe Santuaren baserri bat «eraikitze edo berritze» obrak «herri honetako bizilagun Manuel Ezcurdia jaunaren komizioz» egiten ari zirela baieztatzen du. Era berean, beste ohar batzuen arabera, Ama Nagusia bera –garai hartan sor Dominica Tellechea– arduratzen zen ordainketak egiteaz. Hala, Maria Andrés Arismendik urte horretako apirilean adierazi zuen «Ama Nagusiarengandik 768 erreal kuarto» jaso zituela, hiru mila eta berrehun teilarengatik. Hilabete horretan bertan, Eugenio Arrillagaren taula-biltegiko ordainagiri batek zera adierazten du: «Etxe Santuko Nagusi Andreak 220 erreal eta 28 zentimo zor ditu 100 oholtxogatik».

Erakunde horrek, ordea, ez zuen gastu osoa bere gain hartu behar izan. Batzarrak ekainaren 11n egin zuen bilerako akta berean adierazten denez,

**Pedro Gabirondo harginak aurkeztutako kontuetako batek baserriaren eraikuntza «Manuel Ezcurdia jaunaren enkarguz» egiten ari zela baieztatzen du.**



1870 urtean argitaratutako Tolosako litografia ederra. Bertan, Uzturre mendiaren magaleko sendategi-baserria agertzen da, lau urte lehenago eraikia, telegrafo-dorrearen ondoan, azken hau 1845 urtekoa. Grabatua Donostiako lehen litografoa izan zen Fidel Mugicak egin zuen, eta 17 udalerritako irudiak biltzen dituen "Album de Gipuzkoa" delakoa-ren parte da.

(K. Mitxelena Kulturunea)

«limosna partikularren bitartez egoki iritzitako moduan inbertitzeko Ama Nagusiari 4.500 erreal eman ondoren, obra horren gastuen zati bat ordaintzeko erabili zituen. Kenkari horrekin, 7.520 erreal eta 48 zentimo geratzen dira Benefizentzia Etxe honen funtsetatik ordaintzeko».

Horrez gain, irailean jakin zen pertsona anonimo batek 4.842 erreal eta 65 zentimoko dohaintza egin zuela eta, beraz, Benefizentzia Etxeak azkenean ordaindu behar izan zuen kopurua 2.677 erreal eta 83 zentimora murriztu zen, hau da, hasierako kopuruaren bostena.

1866ko irailaren 14ko aktak honela dio: «Karitateko Ahizpen Ama Nagusia Batzarrena aurkeztu ondoren, adierazi zuen pertsona ongile batek, interesdunaren enkargu bereziz haren izena adierazi behar ez zuenak, lau mila zortziehun eta berrogeita bi erreal eta hirurogeita bost zentimo ordaindu zituela eraikinean egindako obregatik. Obra horiek Uzturre mendian egin dira, leku hartako aire garbia arnastea komeni zaien Etxe Santuko gaixo eta eriondo mota jakin batzuentzat. Batzarrak erabaki zuen, aktan ezin baita agerrarazi hain karitatezkoa den pertsonaren izena, etorkizuneko memoriarako gutxienez, egindako eskuzabaltasuna kontsignatzea eta Ama Nagusiak, Batzarrenaren enkarguz, bere esker ona adieraztea eskaini zuen zerbitzu handiagatik, aktaren kopia ziurtatu bat emanaz, zeina xede horretarako Ama Nagusiari emango baitzaio».

**1868 urteko inbentario baten arabera, etxeak hogei ohe, sukaldea, jangela eta otoiztegia zituen, bai bertan zeuden gaisoentzat, bai «soroak lantzera» joaten zirenentzat.**

### Hogei ohe eta «bainu-etxetxoa»

**O**spitale-etxe honen eta alboan zuen baserriaren ezaugarriak hobeto ezagutzeko, beharrezkoa da Miserikordia etxeak garai hartan egiten zituen ondasunen inbentarioak eta tasazioak arakatzea. Hala, 1868. urteari dagokion inbentarioan adierazten denez, «eriondoen ospitalea» esaten zaion etxeak hogei ohe, sukaldea, jangela eta otoiztegia zituen, bai bertan hartutako gaixoentzat, «bai soro haiek lantzera joaten diren gizon osasuntsuentzat».

Bestalde, 1913ko urtarrilean egindako tasazio batek «geletarako eta behitegirako eraikinaren» ezaugarriak ere zehazten ditu. Eraikin horrek «beheko aldea eta solairu bat» ditu, eta «hirurehun eta berrogeita hamabi metro eta



Miserikordiako sendategiak handik 500 bat metrora, Uzturreko gurutzaren azpian, zegoen Pisuagako iturburuko urak aprobetxatzen zituen. Ur horiek baserria hornitzeko eta orain arte kontserbatu den erietxeari erantsitako igerileku txiki bat betetzeko erabiltzen ziren, baita Pisuagako ur-jauzian bainuak hartzeko ere. Bertan, igerileku natural moduko batzuk prestatu ziren, duela gutxi berreraiki direnak. 1913 urteko planoan, «bainuetxearen» kokapena zehazten da, sendategitik iparraldera. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1983ko mapa batean, toki hori «Bañuetxezarra» izenarekin ageri da oraindik.

(Planoa: Tolosako Udal Artxiboa)  
(Argazkiak: J.S.)

**1913 urtean egindako tasazio batek agerian uzten du «teilape edo bainuetxe bat» zegoela, sendategian artatzen zituzten pertsonak erabil zezaten.**

laurogeita zortzi zentimetro koadroko orubea hartzen du», guztia 6.500 pezetako balioarekin. Horrez gain, etxearen iparraldean 150 metro karratuko teilapea aipatzen da, eraikin nagusitik gertu, 500 pezetako balioarekin.

Udal Artxiboan 1:1000 eskalako plano batekin batera gordeta dagoen tasazio horrek ospitale-etxea inguratzen zuten lursailen hedadura eta ezaugarriak ere zehazten ditu. Horren arabera, lursail horiek «barruti bat osatzen dute» eta honako mugakideak ditu: iparraldean, Aldaba, Santa Lutzia eta Magdalena baserrietako lursailak; hegoaldean, Pisuaga eta Barrena baserrietako lursailak; ekialdean, Aldabakoak eta Anoetako lurrak; eta mendebaldean, Pisuaga, Iturralde eta Iturriozko lursailak.

Lursail horiek guztiek ia 24 hektareako azalera zuten –zehazki, «bi mila hirurehun eta hogeita hamazortzi area eta hemeretzi zentia»–, eta horien artean honako eremu hauek zeuden: «txaraka eta lur harritsua» edo otadilurra; zati batean zuhaitzia duen belar-lur erregularra; hormarekin itxikitako belardia; eusteko hormak dituzten ereiteko lurrak; baratzea; eta «plazatxo edo jolas-lorategi» bat, hori guztia 17.796,35 pezetan baloratua. Ikus daitekeenez, lursail horietako asko, batez ere baserria inguratzen zutenak, eustormetan edo terrazetan oinarrituta zeuden, laborantzarako oso egokia ez zen orografia batean ahalik eta azalera handiena izateko.

Tasazio horren berezitasunetako bat da agerian uzten duela Pisuaga errekan bainuontziak zeudela, sendategian hartutako pertsonak erabil zituzten. Hala, Barrena baserriaren mugetara edo hegoaldera dagoen txaraka eta lur harritsuaren azalera «teilape edo bainu-etxetxo batera jaisten den ubideraino» hedatzen dela deskribatzen du. Eraikin txiki hori inbentarioarekin batera dagoen planoan ere agertzen da.

Izan ere, erietxea kokapen pribilegiatuan egoteaz gain, handik 500 bat metroa Uzturreko tontorraren azpian zegoen Pisuaga iturburuko urak baliatzen zituen gaisoen tratamenduetan erabiltzeko. Pisuagako ur horiek sendategiari atxikitako eta gaur arte kontserbatu den igerileku txiki bat betetzeko erabiltzen ziren, baita Pisuagako ur-jauzian bertan bainuak hartzeko ere. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1983ko mapa batean, toki hori



Uzturre mendiko sendategi-baserriak hogeitahogei ohe besterik ez zituen, bai gaitxoentzat, bai sorak zaintzera joaten ziren langileentzat; Arrameleko Misericordia Etxeko eraikin nagusiak, berriz, 460 ohe zituen guztira. Argazkian, haur talde bat moja batekin Misericordiako gela batean.

(Tolosako Udal Artxiboa)

1918 urteko Espainiako gripea izan zen gipuzkoarrei eraso zien beste epidemieta-ko bat. Lehen Mundu Gerran parte hartu zuten soldaduek zabaldu zuten, trenbidearen bidez batez ere. 1918ko ekainaren 21ean hartutako irudian, Sizilia erregimentuko soldaduak Tolosara iristen, maniobra batzuetan parte hartuzera. Irailaren 15etik urriaren 25era, Miserikordian gripeak jotako 110 gaixo artatu zituzten, eta horien artean zazpi hildako izan ziren.

(Ricardo Martín - Fototeca Kutxa)



«Bañuetxezarra» izenarekin ageri da oraindik. Igerileku natural horiek duela gutxi berreraiki dira.

Aztertutako dokumentazioan ikus dezakegunez, Uzturre mendiko sendategia batez ere biriketako gaitzak zituzten gaixoentzat egin zen –«bularreko gaixoak»–, leku horretan «aire garbia arnastu» ahal izateko. Era berean, baztan-gak jotako gaixoak hartzeko ere erabili zen, azken hori batez ere Bigarren Karlistaldian (1872-1876), aurrerago azalduko ditugun soldaduen testigantzek diotenez.

Dokumenturik ez badago ere, litekeena da Uzturreko sendategia 1918ko «gripe espainiarra» zuten gaixoentzat ere erabili izana. Gaixotasun hori Lehen Mundu Gerran (1914-1918) parte hartu zuten soldadu iparramerikarrek transmititu zuten Europa osoan, eta Gipuzkoan zehar Irun-Madril trenbidearen bidez zabaldu zen.

Biztanleriaren erdiari baino gehixeagori eragin zion eta 3.100 pertsonen heriotza eragin zuen Gipuzkoan (biztanleriaren %1,2). Ohiko arrisku-kolektiboetan (haurrak eta adinekoak) eragina zuten beste epidemia batzuetan ez bezala, gaixotasun horrek gazteak eta adin ertainekoak kolpatu zituen bereziki, pneumonia larriak eraginez.

Tolosari dagokionez, ez dugu koleraren kasuan bezala balantze orokorrik aurkitu. Hala ere, hildakoen ehunekoa %1,2koa izan bazen eta Tolosak 10.200 biztanle bazituen, 120 pertsona inguru hil zirela esan daiteke. Osasun Batzordearen dokumentu bati esker, hori bai, Miserikordian izan zuen eragina ezagutzen dugu. Dokumentu horretan zehazten denez, 1918ko irailaren 15etik urriaren 25era bitartean, Benefizentzia Etxean «grippeak» jotako 110 gaixo ospitaleratu zituzten, eta horien artean 7 hildako izan ziren (13, 21, 28 eta 39 urteko lau emakume eta 35, 40 eta 51 urteko hiru gizon).

Halaber, Uzturreko ospitale-etxeak tuberkulosia zuten gaixoak hartu izanaren aukera aipatu izan da, nahiz eta aztertutako dokumentazioan ez den gaixotasun hori agertzen. José Antonio Recondo medikuak ere, «Medicina y beneficencia» lanean, ez du uste sendategiak zehazki tuberkulosia zuten gaixoentzat erabili zenik.

***Litekeena da Uzturreko etxea 1918eko «Espainiako gripeak» jotako gaixoentzat erabili izana. Gaixotasun hori trenbidearen bidez zabaldu zen Gipuzkoako herrietan.***



Miserikordiaren egoitza 1920. urtean lekualdatu zen Arrameletik Iurreamendira. Irudietan, Arrameleko eraikin zaharraren azken argazkietako bat eta Iurreamendiko eraikin berriaren lehene-tariko bat, biak egun berean eginak, 1920ko ekainaren 25ean, inaugurazioa egin zen egunean hain zuzen. Garai hartako kronikek diotenez, ekitaldia oharkabean igaro zen, eraikin berria herritik urrun zegoelako eta egun horietan San Joan jaiak ospatzen ari zirelako herrian. Goiko irudian, Udalbatza eta eskopetariak Arrameleko ermitarako bidean zegoen Miserikordiaren eraikin zaharra-ren aurretik pasatzen ari diren unea. Behekoan, Iurreamendiko egoitza berria artasoroz inguratua. (Ricardo Martín - Fototeka Kutxa)

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduera funtsezkoa izan zen Miserikordiaren bizi-raupenerako. Marrazki honek ezin hobeto erakusten ditu Uzturre baserriaren inguruko lurretan egiten ziren jarduerak. Lur horietako asko euste-hormetan edo terrazetan oinarrituta zeuden, laborantzarako oso egokia ez zen tokian ahalik eta azalerarik handiena edukitzeko.

(Ekainberri - Arazi IKT SL)



## Nekazaritza eta abeltzaintza jarduera

**H**onaino, Miserikordiak Uzturre mendian zuen eraikin honen osasun-funtzioari buruz aurkitutako erreferentzia guztiak. Izan ere, artxi-boetan gordeta dauden dokumentu gehienek baserri gisa erabiltzen zela erakusten dute, hango ukuiluetako abereak zaintzera eta soroak lantzera joaten ziren langile taldeari ostatu emateko, batez ere belarra moztu eta biltzeko garaietan.

Urtero, Miserikordia Etxeak bere hornidurarako zituen laborantza-tresnen eta abereen inbentarioa egiten zuen. Hala, 1912an zituen jabetzen zerrenda batean jasota dago Uzturreko etxean lau urteko behi bat zegoela, «Berastegi izenez erantzuten zuena», hiru txahal, bi asto, bost hilabeteko astotxo bat, txerri bat, untxiak, oilarrak eta oiloak.

Hiru hamarkada geroago baserri horretan bizi izan zen Elduaien-Ugartemendia familiak izan zuen ukuiluaren oso antzekoa zen: hiru esne-behi, bizpahiru txahal, asto bat, zaldi bat, bizpahiru txerri, oiloak eta untxiak baitzituzten.

Nolanahi ere, Uzturre baserriko azienda-buruak Miserikordiaren ukuilu osoaren zati txiki bat baino ez ziren, denera honako aziendak baitzituen: idi bikote bat, hamaika behi, zortzi bigantxa (21 buru guztira), eta hiru asto, txerri bat, hamaika txerri, 6 antzara, 12 ahate, 5 oilar, 100 oilo eta 50 txita, 1918ko inbentarioaren arabera. Zerrenda xehetasunez beteta dago, eta behi bakoitzaren adinak ere zehazten ditu (bi urte eta erdi eta hamaika urte artekoak), baita horien izenak ere. Horrela, «Mariquita izenez erantzuten duena» edo Adar-motza, Urdiña, Errenteri, Vergara, Moriko edo Illuna izena dutenekin batera, Berastegi azaltzen zaigu, Uzturre baserriko behia, orain sei urte gehiagorekin.

Ukuiluaren tamaina hori aspalditik zetorren; izan ere, 50 urte lehenago, 1868ko abenduan egindako inbentarioan zehazten denez, Arrameleko Miserikordia-etxeak «lanerako idi bikote bat, hamar behi, horietatik zortzi esnetakoak, beste hiru gazte eta zortzi txahal» zituen (guztira 23 buru), eta horiei honako hauek gehitu behar zitzaizkion: zaldi bat eta bi asto, «hiltzeko

*Artxi-boetan  
gordetzen diren  
dokumentu  
gehienek baserri  
gisa erabiltzen  
zela erakusten  
dute, ganadua  
zaintzera eta  
soroak lantzera  
joaten ziren  
langileei ostatu  
emateko.*

**Behin  
Iurreamendiko  
etxe berria  
martxan jarri  
zenean,  
Uzturreko base-  
rria urrunegi  
geratu zen eta  
ez zuen gaixo  
gehiagorik  
hartu.**


bederatzi txerrikume eta hurrengo urterako hamaika», bai eta 112 oilo eta 16 ahate ere.

Benefizentzia erakundeko arduradunen eginkizunetako bat behiek etxeo beharrak hornitzeko adina esne ematea zen. Albaitariak 1921ean egindako txosten batean ondorioztatzen denez, zortzi behirekin «egunean 70 eta 80 litro artean» lor zitezkeen.

Nekazaritza eta abeltzaintza-jarduera, beraz, funtsezkoa izan zen Miserikordiaren biziraupenerako. Eta hori horrela izan zen bai XIX. mendearen bigarren erdian, baita XX. mendearen lehen erdian ere. 1937an, adibidez, Miserikordiako Batzordeak, jada Iurreamendiko eraikinean zegoenak, gerra ondoren geratzen zitzaizkion baliabide bakarrak «eraikina inguratzen duten lur zabalak» zirela nabarmendu zuen, «behitegi bat eta beste abere-zerbitzu batzuk mantentzen laguntzen dutenak, zeinekin eta bakoitzak bere lan pertsonalaren zati bat eskaintzeko gai diren asilatuek lantzen dituzten baratzeekin, etxearen euskarri nagusiaren oinarria diren». Horrekin batera, «beste industria txiki batzuk» ere aipatzen dira, hala nola «elizetako arropen garbiketara edo lisaketa, Karitateko Ahizpek egiten dutena, etxearen onura eksklusiborako».

Uzturreko sendategi-baserrira itzuliz, eraikin honek erabilera sanitarioa baserri erabilerarekin partekatu zuen 1920a arte, urte horretan Miserikordi zaharra Iurreamendiko eraikin berrira aldatu baitzen. Leku aldaketa horren arrazoia Arrameleko eraikina zaharkituta geratu zela izan zen, biztanleria handitu egin zelako eta hezetasun arazo handiak zituelako. Behin Iurreamendiko etxe berria martxan jarri zenean, gaixo guztiak leku hartara eraman zituzten, eta, ondorioz, Uzturreko baserriak, oso urruti geratzen zenak, ez zuen gaixo gehiagorik hartu. Miserikordiako mojek urte batzuk gehiago jarraitu zuten hara joaten Benefizentzian hartutako hurrekin, baina udan bakarrik.

Itxura guztien arabera, Iurreamendirako lekualdatzeak ganadurik gabe utzi zituen Uzturreko baserriko ukuiluak. Hala ere, 20 eta 30eko hamarkadetan, garai hartan dagoeneko San Inazio izenarekin ezagutzen zen baserriak zabalik jarraitu zuen, kasu honetan ere uda garaian bakarrik. Santa Lutzia auzoko




Uzturreko sendategi-baserriari egindako argazki bakarra, 60ko hamarkadakoa, ziurrenik Indalecio Ojangurenek ateratakoa. Bertan, baserriaren eraikina ikusten da lehen planoan, eta, ezkerrean, erietxe gisa erabiltakoa, biak erdiko sarbide batekin lotuta.

(Udal Artxiboa)

Miserikordia 1920an Iurreamendira lekualdatu bazen ere, hurrengo hamarkadetan Uzturreko baserria erabiltzen jarraitu zuten, baina uda garaian bakarrik. Hori dela eta, inguruko artzain batzuek baserriko belarrak erabil-tzen ez ziren garaietan aprobetxatu ahal izatea eskatu zuten.

Irudian, Indalecio Ojanguren argazkilaria egina, artalde bat Uzturre gailurraren ondoan.

(Gipuzkoako Artxibo Orokorra - OA06529 - Indalecio Ojanguren)



beste baserrien jabeek eta Uzturreko artzainek San Inazio baserriko urak eta belardiak erabiltzen ez ziren garaietan aprobetxatzeko Miserikordiaren Batzordeari egindako eskaeretan ikus dezakegu hori.

Horrela, 1924ko abenduko dokumentu batean, Santa Lutzia auzoko Ezama baserriko Cesareo Gaztañagak eskaera egiten du Benefizentziak San Inazio etxea hornitzeko Uzturre mendiaren magalean zuen iturburuko urak aprobetxatu ahal izateko. Izan ere, aprobetxamendu hori «aldizka egiten zela» egiaztatzen du, hau da, «Tolosako Benefizentziako asilatuak edo langileak aipatutako etxera nekazaritza lanak edo belarra moztera joaten ziren garai jakin batzuetan soilik, eta urteko gainerako hilabeteetan alferrik galtzen dira urak, behar bezala ez erabiltzeagatik».

Eskaera horren aurrean, Gaztañagari aprobetxamendua baimentzea erabaki zuen Batzordeak, «hainbat nekazari-lanetan Benefizentzia honi ematen dizkion zerbitzu onak kontuan hartuta». Hala ere, baimen hori «San Inazio etxean inor bizi ez den eta, ondorioz, ur horien beharrik ez dagoen» garaietara mugatuta geratu zen.

Antzeko eskaera bat errepikatu zen 1939an. Urte hartako Iurreamendiko agiri batean jasotzen denez, Batzarrari jakinarazi zitzaion zenbait artzainek neguan Uzturre mendiko belarrak errentan hartzeko interesa zutela. Eskaera hori atzera bota zuten, besteak beste, «udan etxeko aziendaren bazkarako belar gutxiago sortuko zela» iritzita. Horrek erakusten du gerra ondoren ere Miserikordiak San Inazio baserriko larreak aprobetxatzen jarraitzen zuela.

Akta horretan bertan, belarra biltzeko garaia amaitzean baserrian gertatutako lapurreta baten berri ematen da. Honela dio agiriak: «Uzturre mendiko belarrak biltzeko lanak amaitu eta egun gutxira, denboraldi bakoitzaren amaieran egin izan ohi den bezala tresnak biltzera joatean, asilatuak lotarako erabiltzen dituzten oheetan hamabi koltxoi falta zirela ikusi zen». Horren berri Guardia Zibilaria eman zitzaion, «nahiz eta koltxoi horiek ez ziren balio handikoak, artile oso pilatua zutelako».

Artzainen eskaerari emandako erantzunean, San Inazio etxea haurrentzako udaleku gisa erabiltzeko berreraikuntza proiektua ageri da. Hori dela eta,

***1939 eta 1940ko hamarkadetan, Uzturreko eraikina haurren udako kolonia gisa egokitzeke bi proiektu egin ziren, baina azkenean bietako bat ere ez zen gauzatu.***

berrikuntza obra horiek egin arte itxarotea erabaki zen, «ikusteko posible izango ote zen lur horiek negu osoan alokatzea, modu horretan, eraiki nahi den etxea hutsik egon beharko zuen garaian errentan hartuko lukeen artzainak gorde eta zaintzeko».

Udal Artxiboan «Uzturreko San Ignacio Erietxea» izenez deitzen zaion eraikina haurrentzako udaleku gisa egokitzeko proiektuak eta berritze-planak gordetzen dira. 1939an, Antonio Aguirre udal-arkitektoak sinatutako lehen proiektu bat prestatu zen, eraikuntzaren kokalekua eta honek zuen iturburua aprobetxatu ahal izateko. Hurrengo urtean, ordea, udal arkitekto berriak, Joaquín Labayenek, beste proiektu bat idatzi zuen, lehenengoan hainbat arazo antzeman ondoren. Nolanahi ere, bietako bat ere ez zen burutu.

Horrela, hurrengo urteetan, eraikinak baserri erabilpena izaten jarraitu zuen, batez ere Bonifacio Elduaien eta Josefa Ugartemendia bertara iritsi ondoren. Izan ere, bikote hori 1942an ezkondu eta Uzturreko etxera joan zen bizitzera, nekazaritza eta abeltzaintza jarduera berreskuratuz. Familia horrek 1964ra arte mantendu zuen baserria zabalik.

### Elduaien-Ugartemendia familia

**B**onifacio Elduaien Zabaleta leitzarra bi urte eta hamar hilabete ibili zen soldadu 36ko gerran. Itzulitakoan, 1939ko uztailaren 29an, Iurreamendin hasi zen lanean bere bi lehengusu eta hiloba batekin batera, bertako ukuiluko ganadua gobernatzen eta inguruko lurraldeak lantzen. Hauxe da haren semeen kontakizuna.

Iurreamendin hasi eta gutxira, abuztuaren 24an, ondoan zegoen Papeleta Españolan hasi zen lanean, baina errelebotan ari zenez, egunean ordu batzuz Iurreamendiko baserri lanetan laguntzen jarraitzeko eskatu zuen.

Han ezagutu zuen garbitzaile lanetan aritzen zen Josefa Ugartemendia Nazabal berastegierra eta, denbora asko igaro gabe, ezkontzeko asmoa azaldu zuten. Sakramentuen ondoan etxe bat aurkitu zuten bertara bizitzera joateko, baina Miserikordiako arduradunek ezkontzaren berri izan zutenean, Uzturreko San Inazio etxea eskaini zieten.

«Miserikordiako mojek etxe hura uda partean erabiltzen zuten batipat, hurrekin eguna pasatzera igotzen zirelako. Baina negu partean ez ziren joaten eta, ondorioz, hutsik geratzen zen. Horregatik, Miserikordiako ama nagusiak etxea eskaini zien, bertan bizi eta urte guztian zehar etxea eta inguruko baratzak eta belardiak zainduta egon zitezen», azaldu digute Joxe Mari eta Iñaki Elduaien Ugartemendia seme gazteenek.

Bonifaciok eta Josefak begi onez ikusi zuten eskaintza eta, horrela, ezkondu ondoren, Uzturreko San Inazio etxera joan ziren bizitzera, 1942. urtean. Bonifacioren ama ere beraiekin joan zen etxe hartara. Handik urtebetera Milagros jaio zen, beren lehenbiziko alaba, eta jarraian etorri ziren Izaskun, Boni, Jexux, Maria Jesus, Joxe Mari eta Iñaki. Denak baserrian bertan jaio ziren, gazteena izan ezik, eta denek bizi izan zuten haurtzaroa baserrian.

Joxe Marik eta Iñakik ondo gogoratzen dute nolakoa zen beren jaiotetxea izandako San Inazio baserria. «Ezkaratza nagusia erdian zegoen; ezkerretara sendategira sartzen zen eta eskubitara, baserrira. Lehenbizi sukaldea zegoen, eta gero ukuiluak. Goiko pisuan bost logela zeuden, komedorea eta komuna. Eta goian, ganbara». Bi anai gazteenek «oroitzapen ezin hobeak» dituzte han

***Miserikordiako  
ama nagusiak  
etxea eskaini  
zient Bonifacio  
eta Josefari, ber-  
tan bizi eta urte  
guztian zehar  
etxea eta inguru-  
ko baratzak eta  
belardiak zain-  
duta egon zite-  
zen.***



Elduaien-Ugartemendia familia 1942tik 1962 urtera arte bizi izan zen San Inazio baserrian eta, ukuiluko behiak gobernatzeaz gain, etxe inguruko belarra biltzen zuten Iurreamendira eramateko. Goiko irudian, Bonifacio Elduaien (eskuinean), bere seme Jexux (txakurrarekin) eta baserriko lanetan laguntzen zieten Pisuaga Beheko baserriko bizilagunak: Guillermo eta Kornelio, atzean Inazio Donearen irudia dutela. Beste argazkietan, goiko laurak idi-gurdiarekin, Jexux aizkoran etxe atarian eta Bonifazio zaldiarekin eta txakurrarekin.

(Argazkiak: Elduaien-Ugartemendia familia)

**Urte haietan,  
San Inazio  
etxean ez zegoen  
argi-indarrrik eta  
1945 urtean egin  
zituzten linea  
elektrikoa erai-  
kitzeko lanak.**

bizitakoaz eta jai egunetan jolasean igarotako arratsaldeetaz. «Eguraldi ona egiten zuenean, etxea atarian jartzen ginen denok; ama alde batean, aita bestean, eta senide guztiok trapuz egindako baloi batekin ibiltzen ginen, jo eta su. Ondoren, amak prestatutako txokolate beroa hartzen genuen», diote Joxe Marik eta Iñakik.

Baina dena ez zen jolasa. Asteazkenean, Santa Lutzi auzora jaisten ziren eskolara, etxe ondotik abiatzen zen bidexka malkartsutik behera. Bitartean, bi ahizpa zaharrenek, Milak eta Izaskunek, baserriko lanetan laguntzen zieten egunero gurasoei, batez ere hurrengo egunean plazan saltzera eramango zituzten berdurak garbitzen eta prestatzen. Barazkiak ez ezik, arrautzak eta esnea ere saltzen zituzten merkatuan, etxeko ukuiluan hiru behi zituzten eta. «Alde batean bi edo hiru txekor eta behi-xarra genuen, hura amak jaizten zuen; eta beste aldean beste bi behi zeuden, gazteagoak eta indartsuagoak, eta haiek aitak jaizten zituen». Behien ondoan, astoa eta zaldiaren tokia zegoen, eta inguruan bi edo hiru txerri, oiloak eta untxiak zeuzkaten.

Beste baserrietan ez bezala, San Inazio ez zituzten behiak uztarrarian erabiltzen, astoa eta zaldia baizik. «Gure etxean behiak ukuiluan egoten ziren eta uztarrarian zaldia eta astoa ibiltzen zituen gure aitak, beharbada hemengo bidezidorrak oso estuak zirelako eta behiak ez zirelako sartzen». Bi anaia gazteenek gogoan dituzte astoaren eta zaldiaren gainean jarrita baserrietik Santa Lutzira egiten zituzten lasterketak, gurasoengandik ezkutuan.

Baserriko lanak egiteaz gain, Bonifaciok egunero Papelera Españolarara joaten jarraitu zuen. Haraino iristeko, San Inaziotik oinez jaisten zen Santa Lutzi auzora eta han Goiko-Etxetxo baserriko bordan gordeta izaten zuen bizikletarekin jarraitzen zuen Tolosako beste muturrean zegoen paper-fabrikaraino. Hiru errelebotako lana bazuen ere, Bonifaciok eguneko txandak bakarrik egin zituen. Bere lankide Ziriako Arana gaueko txandak egitera eskaini zen, gauean familiaren ondoan egon zedin.

Lehenbiziko urte haietan, San Inazio etxean ez zegoen argi-indarrrik eta 1945 urtean egin zituzten linea elektrikoa eraikitzeko lanak. Urte hartako apirilean, Miserikordiako batzarrak argi-indarra eramateko eskaria egin zuen,



Bonifacio Elduaian eta Josefa Ugartemendia Iurreamendin lanean ari zirela ezagutu ziren. Ezkondu ondoren, Uzturreko San Inazio etxera joan ziren bizitzera Bonifacioren amarekin batera (erdian). Zazpi seme-alaba izan zituzten han. Baserriko lanak egiteaz gain, Josefak etxe atarian kantina zabaldu zuen.

(Elduaian-Ugartemendia familia)

1940. hamarkadan  
Uzturreko San  
Inazio etxean sortu  
zen Elduaien-  
Ugartemendia  
famiako hiru  
belaunaldi. 1980.  
hamarkadan atera-  
tako argazki honen  
erdian Bonifacio  
eta Josefa agertzen  
dira eta inguruan  
beren zazpi seme-  
alabak, horien  
bikoteekin eta 16  
bilobekin.

(Elduaien Ugartemendia  
familia)



kontuan hartuta etxe hartan «bi emakume bakarrik geratzen zirela» Bonifacio paper-fabrikara joaten zenean.

Horrela dio batzarrean jasotako aktak: «Hobekuntza hori ez da soilik komenigarria uda belarra mozten eta biltzen igarotzen zuten morroi eta asilatuentzat, baita urteko gainerako egunetan eta, batez ere, neguan, toki hura zaintzen ari zen senar-emazteen baldintzak kontuan hartuta ere. Izan ere, gizonak txandaka joan behar zuen Papelera Españolara, eta batzuetan goizeko 6etan sartu eta beste batzuetan gaueko 10etan irten behar zuen, etxea ordu bat lehenago utziz edo ordu bat geroago iritsiz, distantzia zela eta, horren ondorioz, hain ordu ezohikoetan eta argirik gabe geratuz etxean emakumea ama zaharrarekin eta bi haur txikiekin. Hori dela eta, Batzordeak instalazio hori adierazitako moduan egitea erabaki zuen». Linea elektrikoa eraikitzeko, Miserikordiak Berastegin zuen zentralako kobrezko haria erabili zuten, eta obrak 2.795 pezetako kostua izan zuen. Etxe-barruan argia jartzeko materiala, bere aldetik, 468 pezeta kostatu zen.

Baserria eta sendategia ez ezik, taberna ere izan zen San Inazio etxea. Izan ere, Josefak etxe atarian kantina zabaldu zuen, mostradore eta sukaldearekin, auzoko baserritarrei eta mendizaleei hamaiketako emateko. «Jende asko etortzen zen gure etxera hamaiketako egitera eta, bide batez, kontu batzuk esatera».

San Inazio baserriaren alboan erietxe izateko eraikitako etxearen oroitzapenak ere badituzte Joxe Marik eta Iñakik, nahiz eta beraiek etzuten erabilpen horrekin ezagutu, uda partean belarra moztera etortzen ziren langileen aterpe bezala baizik. «Beheko partean langileek erabiltzen zituzten baserriko tresnak zeuden, kupelak... Eta goiko pisuan logelak; ia urte osoan hutsik egoten ziren, horregatik koltxoirik gabeko burnizko oheak bakarrik zeuden». Kanpokaldean, baina etxearen teilatuak estalita, bainu-gela haundi bat ere bazegoela gogoratzen dute. «Boni anai zaharrenak urez betetzen zuen eta gu hantxe ibiltzen ginen».

Miserikordiako umeekin lurreamenditik egun-pasa joaten ziren mojen izen batzuk ere gogoan ditu Joxe Marik: sor Mikaela, sor Josefina, sor Maria Rosario...

***Baserriaren  
alboan sendategi  
izateko eraikita-  
ko etxearen  
oroitzapenak ere  
badituzte Joxe  
Marik eta  
Iñakik, nahiz eta  
beraiek etzuten  
erabilpen horre-  
kin ezagutu.***



Miserikordiako mojak 1920an leku-aldatu ziren Arrameletik Iurreamendira, baina urte batzutan Uzturreko San Inazio etxera egun-pasa joaten jarraitu zuten umeekin, uda partean batez ere. Tolosako Udal Artxibategian gordeta dagoen argazki honetan, Miserikordiako neskatoak eta mojak ageri dira, 1930. hamarkadan egindako irteera batean.

(Tolosako Udal Artxibategia)

Etxearen inguruan, baziren beste zenbait eraikin txikiago, baita harriz egindako terraza ugari ere. «Garai batean egindako terrazak ziren, hormen artean soro txikiak prestatzeko eraikitakoak, eta gure gurasoak hara bizitzera joan zirenean haiek guztiak garbitu eta berreskuratu zituzten. Guztira hogeit bat izango ziren, etxearen beheko aldetik eta goiko aldetik».

Inguruko belardietan ebakitzen zen belarra Iurreamendira eramaten zen gurdiz, San Inazio baserrian baino behi gehiago zeudelako han. Idi-gurdiak ere Iurreamenditik bidaltzen zituzten, eta horren inguruan Joxe Marik eta Iñakik badute pasadizo bitxi bat. «Bildutako belarraren arabera, gurdi bat edo bi behar izaten genituen, eta Iurreamendira eskatzeko gure amak maindireak erabiltzen zituen. Horrela, gurdi bat behar bazen maindire bat jartzen zuen bistan ilundu baino lehen, bi gurdi behar baziren bi maindire, eta horrela Iurreamendiko langileek bazekiten hurrengo goizean zenbat gurdi bidali behar zituzten».

Pisuaga errekan bainuak hartzeko zeuden putzuen oroimena ere badute Joxe Marik eta Iñakik, aita eta Boni anai zaharrena San Inazio etxeak errekarren beste aldean zituen lursailletara belar bila joateko handik pasa behar izaten baitzuten.

Urteek aurrera egin ahala, ordea, seme-alaba guztiak etxetik joaten hasi ziren eta, azkenean, Bonifacio eta Josefa bakarrik geratu ziren. Hauen adina gero eta handiagoa zen eta 1962. urtean, Milagrosek Tolosan zuen etxera jaitsi ziren bizitzera. Hala eta guztiz ere, hurrengo bi urtetan baserria martxan mantendu zuten. Hasieran Bonifacio bera igotzen zen egunero, baina gero Jexux semea joaten zen ganadua gobernatzera.

Bi urte horrela ibili ondoren, 1964an ganadua kentzea erabaki zuten eta, jarraian, giltza Iurreamendiko administratzaileari itzuli zioten, etxea erabat hutsa geratuz. Urte gutxiren buruan, teilatua eta horma batzuk behera erortzen hasi ziren eta, bost hamarkadatan, baserri zaharraren hondakinak sastraka artean ezkutaturik egon ziren, etxe hartan bizi izandakoaren oroitzapena pixkanaka desagertzen joan zen bitartean. Senar-emazteak Tolosan bizitzen jarraitu zuen. Josefa 1990ean hil zen 80 urterekin eta Bonifacio 2003an, 90 urte zituela.

***1964an ganadua kentzea erabaki eta giltza itzuli zuten, etxea erabat hutsa geratuz. Urte gutxiren buruan, teilatua eta horma batzuk behera erortzen hasi ziren.***

## Leku estrategikoa gerra garaian

**U**zturreko San Inazio ospitale-etxea Oria bailaratik Tolosara sartzeko bidean leku estrategikoa kokatua dago. Bertatik ezin hobeto ikusten dira bai herriaren hirigunea baita inguruetako mendiak, herriak eta auzoak ere.

Arrazoi horregatik, etxea zabalik egondako ehun urteetan izan ziren gerretan, alegia, Bigarren Karlistaldian (1872-1876) eta Gerra Zibilean (1936-1939), zaintza-gune gisa erabilia izan zen, ez ordea zaurituak artatzeko, egin-kizun horretarako militarrek Miserikordiaren eraikin nagusiak okupatu zituzten eta (Arramelekoa Karlistaldian, eta Iurreamendikoa Gerra Zibilean).

Azken urteotan egindako mantentze-lanei esker, Uzturreko sendategiaren ondoko eraikinetako batean bala-zorro batzuk aurkitu dira, eta horien analisiak agerian uzten du Karlistaldian zein 36ko Gerran soldaduak egon zirela bertan.


Bigarren Karlistaldiari dagokionez, bai Izaskun, bai Uzturre mendia, eta bereziki erietxea, karlistek okupatu zituzten 1873ko abuztutik 1874ko otsailera bitartean Tolosari jarri zioten setioan. Gerraren lehen urte haietan, karlistek Gipuzkoako lurralde ia osoa bereganatu zuten, Irun eta Tolosa arteko trenbidearen ibilbidea jarraitzen zuten herriak izan ezik (Andoain, Hernani, Donostia...). Tolosa, Gipuzkoa barrualdean zegoenez, liberalek kontrolatutako gainerako udalerrietatik aparte geratzen zen askotan eta, ondorioz, Antonio Lizarraga jeneralak zuzentzen zituen tropa karlistek inguratuta, azken hauek nagusi baitziren inguruetako herrietan: Hernialde, Irura, Amasa, Villabona, Zizurkil, Asteasu edo Aduna.

Hala, Tolosa inguratuta egon zen sei hilabete horietan, tiroketa ugari izan zen soldadu liberalak egur eta janari bila inguruetako baserrietara ateratzen ziren bakoitzean. Aldi berean, espainiar armada liberalak ahalegin ugari egin zituen karlisten setioa hausteko eta gune garrantzitsu horretako bizilagunei zein zaintzen zuten soldaduei janariak eta mota guztietako hornidurak eramateko.

*Bigarren  
Karlistaldian  
(1873ko abuztu-  
tik 1874ko otsai-  
lera bitartean  
Tolosari jarri  
zioten setioan),  
karlistek Izaskun  
eta Uzturre hartu  
zituzten, baita  
bertan zegoen  
erietxea ere.*

Bigarren Karlistaldian (1872-1876), Uzturreko sendategi-baserria baztan-gak jotako gaixoak artatzeko erabili zen, baina ez gudu-zelaian zauritutako soldaduak artatzeko, hauek Miserikordiaren eraikin nagusira eramaten baitzituzten. Garaiko ilustrazio honetan, Karlos VII.ak Arrameleko eraikinean artatutako soldaduei egindako bisita ikus daiteke, ofizial karlistek lagunduta.

(Tolosako Udal Artxiboa)



**Karlisten hesia  
ia Tolosako  
hiriguneraino  
iristen zen,  
tropak Montezku  
(Txoritokieta),  
Urkizu,  
Olarrain, San  
Blas, Izaskun eta  
Uzturren  
baitzeuden.**

Ahalegin horretan, 1873ko azaroan eta abenduan borroka armatu handiak gertatu ziren, Belabietako gudu ospetsua eragin zutenak. Izan ere, mendi haie-tara eraman zituen bere tropak Andoaindik Tolosara abiatu zen Domingo Moriones jeneral liberalak, modu horretan Uzturre mendiaren azpiko pasabi-de estua saihestu ahal izateko.

Abenduaren 9an gertatu zen bataila hori, bere tamainagatik, «Gipuzkoako bataila» bezala ezagutua izan zen, 14.000 soldadu inguruk parte hartu baitzu-ten bertan eta, egun bakar batean, 600 inguru hil baitziren bi aldeetan. Baja horiek guztiak izan arren, liberalen ahaleginak ez zuen askorik balio izan; izan ere, hasiera batean Tolosa hornitzeko korridore bat irekitzea lortu bazuten ere, handik egun gutxira berriro itxi zen eta karlistek biztanleak jazartzen jarraitu zuten, lau hilabete lehenagotik egiten ari ziren bezala.

Garaiko prentsa-artikuluetan ikus daitekeenez, karlistek Tolosari jarri zio-ten setioa ia herriguneraino iristen zen, beren indarrak Montezkun (Txoritokieta), Urkizun, Olarrainen, San Blas, Izaskunen eta Uzturren bait- zizutzen. Gune horietatik etengabe bonbardatzen zituzten Tolosako etxeak, karlisten buruzagiek behin eta berriz amore ematera deitzen zuten bitartean. “El Cuartel Real” egunkariaren 1873ko abenduko ale batean, inguru horretan

hedatuta zegoen tropa kopuru handia deskribatzen da: «Batailoi bat Alkizan, Hernialden eta Txoritokietan; 100 gizon Urkizun; 230 Altzon (goian eta behean), 50 Ibarra, bi konpainia Uzturren; bi Tolosako Miserikordia etxean...». Ikus daitekeen bezala, karlistek Arrameleko Miserikordiaren eraikina ere okupatzen zuten eta, ondorioz, liberalek ospitale militar bihurtutako zentro horretan zituzten soldadu zauritu eta gaixoak Plaza Berriko Toriles eraikina eraman behar izan zituzten, zubiaren beste alde- ra.

Garai hartako karlisten kronikek diote- nez, liberalek eraso egin zieten Izaskunen zeuden indar karlistei, eta zaurituta erori ziren bi zentinelak karlista preso hartzera iritsi ziren.

Inguru hori guztia, beraz, borroka armatuen eszenatoki izan zen, eta Uzturreko erietxeko lurretan egindako munizio aurkikuntzak berretsi egiten du hori. Zehazki, Berdan 1867 fusilaren leherrarazi gabeko bi jaurtigai dira, gerra- ren lehen urteetan bi aldeek maiz erabil- tzen zuten munizioa, Remington 1871 ezagunekin batera. Litekeena da munizio hori indar karlistena izatea; izan ere, sold- adu horiek Uzturreko erietxea zaintza- gune gisa erabili zuten Tolosari jarritako setioak iraun zuen bitartean.

Soldaduen testigantzek ere leku horre- tan kontingente militar garrantzitsu bat zegoela baieztatzen dute. Horrela, aita



Azken urteotan egin diren garbiketa-lanei esker, hainbat bala-zorro aurkitu dira Uzturreko sendategi- baserriaren ondoko eraikinetako batean, eta horien analisiak agerian uzten du leku horretan soldaduak egon zirela, bai Bigarren Karlistaldian, bai 1936ko Gerra Zibilean. Ezkerrean, Berdan 1867 modeloko fusilaren bi jaurtigai eta eskuinean, 7/57 kalibreko zorroa Mauser 1893 fusilarentzat.

(Argazkia: J.S.)

1874ko otsailaren 28an amaitu zen indar karlistek Tolosari sei hilabetez jarri zioten setioa, egun horretan tropa liberalek herria utzi eta Donostiara joatea erabaki baitzuten. “Illustrirte Zeitung” alemaniar argitalpenaren grabatu honek soldaduen eta ehunka bizilagunen ebakuazioa erakusten du, gerrak suntsitutako eraikinen artean.

(J.S. funtsa)



Apalategik gerra hartan parte hartu zuten karlistengandik jasotako kontakizunetako batek dioenez, soldaduek guardia egin zuten bai Miserikordia etxean bai Uzturreko erietxean. Are gehiago, urte hartan eraikin horretan batez ere baztangak jotako gaixoak artatzen zituztela adierazten du. «Tolosako Miserikordian ganean bazen etxea baztanga zutenentzat. Han ere izan ginen», adierazi zuen Jose Antonio Arteagak, Egiako Aztiñene baserrian jaiotako soldadu karlistak.

“El Cuartel Real” egunkariak deskribatzen duenez, 1873ko abenduan baztangak «hondamen handiak» eragin zituen Tolosan, eta horren lekuko dira, halaber, gaixotasun horrek jotako Errepublikako boluntarioak ospitale militarrean izan zituzten sarreren inguruko agiriak.

«Tolosako Miserikordian ere guardia egin genuen», dio beste testigantza batek. Kontuan hartu behar da Apalategik 1932an jaso zituela testigantza horiek, hau da, Miserikordia Iurreamendira lekualdatu ondoren, eta horrek informatzailea honako azalpena egitera eramaten du: «Orduko Miserikordia ez zegoen oraingoaren tokian. Iru ratik zoazela, zubian sartu baino lehenxeago zegoen, ezkerretara. Orain etxe berriak daude».

1874ko otsailaren 28an amaitu zen Tolosako setioa, tropa liberalek herria utzi eta Donostiara joatea erabaki zutenean. Ehunka herritarrek ere ihes egin zuten operazio horretan. Ebakuazioa testuinguru larri batean gertatu zen, “Illustrirte Zeitung” alemaniar argitalpeneko orrialde batean aurkitu dugun ilustrazioak erakusten duen bezala. Bertan, soldadu liberalak eta Tolosako bizilagunak daramatzaten zalgurdiak ikus daitezke, gerrak suntsitutako eraikinen artean igarotzen, segur aski Arrameleko Miserikordia etxea zegoen inguruan.

Sei hamarkada geroago, 1936ko udan gerra berri bat piztu zenean, soldaduak Uzturreko erietxera itzuli ziren, tropa frankistek Tolosari egindako eraso delata eta. Orduko hartan, matxinatuak Nafarroa aldetik zetozen (Berastegiko haranetik eta Madril-Irun errepidetik). Beren asmoa Tolosa bereganatzea zen, eta horretarako aurre egin behar izan zieten Uzturre, Izaskun eta San Blas auzoaren magaletan azken defentsalerroa ezarrita zeukaten ehunka miliziano errepublikarrei. Eraso Leaburu inguruan zain zeuden

***Gerra hartan parte hartu zuten karlistetako batek baieztatu zuen guardia egin zutela bai Miserikordian baita Uzturreko sendategian ere. Hemen, baztanga gaixoak artatzen zituztela adierazi zuen.***



Tropa frankistek 1936ko abuztuaren 11n hartu zuten Tolosa, bi eguneko borrokaren ondoren. Enfrentamendu horiek, besteak beste, Izaskungo ermitan eta Uzturren izan ziren, mendi honen magaletan ezarri baitzuten miliziano errepublikanoek azken defentsalerroa, handik Villabonara alde egin aurretik. Irudian, posizio frankista baten hornikuntza Urkizun eta, atzean, Uzturre mendia.

(J.M. Tuduri. "Argazkiak 1920-1945")

Latorreren indarrak eta Alegiatik zetozen Cayuelarenak elkartu zirenean hasi zen.

Abuztuaren 9an, matxinatuak ia erresistentziarik gabe igo ziren Belabietara eta, posizio horretan egon ondoren, Izaskungo ermita bereganatu zuten. Hurrengo egunean, ordea, hainbat liskar izan ziren Uzturre mendian eta frankistek hildako bat izan zuten. Arratsaldean, berriz, erasotzaileen lehen abangoardiak tren geltokia eta Papelera Española okupatzea lortu zuten. Azkenik, abuztuaren 11n, zutabe nazionalak Tolosan sartu eta Urtizberera kapitainak zuzendutako indar errepublikarrak Villabonara atzeraraztea lortu zuten.

Borroka haietan gertatutakoaren aztarna izan liteke San Inazio baserriaren ondoan aurkitutako munizioa, hain zuzen, Mauser 1893 fusilerako 7/57 kalibreko bala-zorro bat, oso ohikoa garai hartan, bi aldeetako soldaduek erabili baitzuten Gerra Zibilaren hasieran. Aurreko kontakizunetik ondorioztatu daitekeenez, Izaskun eta Uzturre inguruetan tiroketa gogorrak izan ziren, frankistek Tolosako hirigunera bidali baitzituzten inguru haietan azken defentsalerroa ezarrita zuten indar errepublikarrak.

Enfrentamenduak amaitu ondoren, eta Bigarren Karlistaldian gertatu bezalaxe, ez dirudi Uzturreko erietxea militarrek okupatu zutenik, bai ordea Miserikordiaren eraikin nagusia, kasu honetan Iurreamendi. Urte haietako Benefizentzia Batzordearen aktetan agertzen denez, frankistek udalerria hartu bezain laster, 1936ko abuztuan, «Ospitale Militarra» ezarri zuten Iurreamendin, eta horrek eragozpen larriak eragin zizkien bertan zeudenei. Gainera, hurrengo urtean, eraikin osoa husten saiatu ziren, baina Batzordeak ez zuen onartu, herriaren erdigunean zegoen beste eraikin batera lekualdatzea guztiz «gauzaezina» eta herritarren osasunerako arriskutsua izango zelakoan.

Bien bitartean, pentsatzekoa da San Inazio etxea ez zela kaltetua izan, Miserikordiak baserri gisa erabiltzen jarraitu baitzuen, eta mojek leku horretara joaten jarraitu baitzuten erakundean zeuden haurrekin, 1942an Elduairen Ugartemendia familiak bere bizilekua bertan finkatu zuen arte.

***1936ko abuztuaren 9an, matxinatuek Izaskungo ermita bereganatu zuten, eta hurrengo egunean hainbat borroka izan ziren Uzturren. Frankisten bandoan hildako bat izan zen.***



1774.- Arrameleko Miserikordiaren eraikuntza.

1830.- "Hijas de la Caridad" erakundeko mojen iritsiera.

1855.- Kolera epidemiak 380 hildako eragiten ditu Tolosan.

1863.- Trenbidearen iritsiera Tolosara.

1866.- Uzturreko sendategi-baserriaren eraikuntza.

1873.- Soldadu karlisten okupazioa, Tolosako setioan.

1918.- Gripe espanyolaren zabalkundea Gipuzkoan.

1920.- Miserikordiaren lekualdatzea, Arrameletik Iurreamendira.

1936.- Soldadu frankista eta errepublikanoen arteko borrokaldiak.

1939.- San Inazio baserria udaleku gisa birmoldatzeko lehen proiektua.

1942.- Elduaie-Ugartemendia familiaren iritsiera.

1945.- Argi-indar linearen eraikuntza.

1964.- Baserria hustu ondoren, itxita geratzen da.